

Elgoibar 1.320. zenb.
XXXI. urtea - 2024/03/08



Plazak dantzan jartzera datoz

Kitziki musika taldea



GREEN MISSION GIDA



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA

Cuidando lo Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279



AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegio - altzariak - erre-aldaketak

Kurutuz-gain Industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriainmar@hotmail.com
@carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agire Kulturgunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

23,10€
hilan

12
aldiz urtean

4,885
die ostero

22 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiho ikusia.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://www.facebook.com/barrenaldizkaria)



twitter.com/barreneus



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://www.instagram.com/barrenaldizkaria)

Ane Astiazaran

Itzultzailea

Ezer berririk ez



"Geure burua zapaldu moduan ikusteak askotan geure burua zapaldu moduan 'bakarrik' ikustea dakar"

Gaur ez dut ezer berririk esango. Aitzitik, ondo (ondoegi) barneratuta ditugun pare bat kontu gogora ekartzeko egun aproposa dela iruditzen zait. Badugu identitateen inguruko diskurtso erdi osatu bat, badugu identitate pertsonal bat, eta baita identitate erlazional bat ere, eta bigarren identitate horren bitartez, norbanakoak partaide izate horren arabera ulertzen du bere burua: genero, klase, etnia, arraza... identitateei buruz ari gara.

Euskal identitatea gatazka sortu duen identitatea izan da, bai euskaldunen artean eta bai euskaldunak ez direnen artean. Basatiak, barbaroak, hizkuntza gaitasunik gabeak... hamaika izan dira kanpotik jarri dizkiguten etiketak (zinez gomendatzen dizuet Ibai Atutxaren *Zibilizatuak eta barbaroak* liburua -asmatu nor garen gu-), eta narratiba horien eta zapalkuntza historiko eta politiko amaiezinen ondorioz, ezinbestean ulertu dugu zapaldu moduan gure identitate kolektiboa.

Nazio identitate zapalduak ez gaitu beste zapalkuntza batzuk erreproduzitzetik salbuetsiko, ordea, ezta genero identitate zapalduak ere. Bi zapalkuntza horiek badute zerbait oinarrian, izan ere, geure burua zapaldu moduan ikusteak askotan geure burua zapaldu moduan *bakarrik* ikustea dakar.

Euskal feminismoak bere kezkek, agendak eta iritziak unibertsal bihurtzen baditu, ez dugu ezertxo ere ulertu. Ez da nahikoa interseksionalitatearen arauak teoriarik onartzea, atzetik baina bat badator. Konpromiso itxurati horrek egiten gaitu gu zapaldu, baina zapaltzaile. Oraingoan ez gara gu izango barbaroak (zinez gomendatzen dizuet Rafia Zakariaren *Feminismo zuriaren aurka*).

Batzuetan pentsatzen dut eroso gaudela gure biktima paperean, zapalkuntza eta erresistentzia horrek arrazoia eta zilegitasuna emango baligu bezala. Mendebalzentrikoegiak gara periferiak ere badaudela onartzeko. Esan bezala, bi zapalkuntzei buruz ari naiz

Esan bezala, ezer berririk ez.

Eskerrik asko

Debabarreneko Etxeko Ospitalizazioko talde osoari bihotzez eskerrak eman nahi dizkiogu gure aitaren azken egunetan, profesionaltasunez eta goxotasunez lan eginez, eman diguten laguntzagatik, bai aitari eta baita geuri ere.

Gurrutxaga-Longarte familia

Eskerrik asko

Ez zigun eskatutako eguraldirik egin, baina hala ere, jende mordoska elkartu ginen Mendaroko Plaza auzoan domekan, Aingeru Guardakoaren jaia ospatzeko. Eskerrik asko guztioi! Era berean, jai batzordetik gure esker ona agertu nahi diogu Mendaroko Udalari emandako laguntza eta babesagatik, eta baita Arno Guraso Elkarteari ere, domekarako iragarria zuten mendi-irteera atzeratu eta jaira batzeko deia egiteagatik. Esan gabe doa lana dela hemen edozer antolatzea, eta horregatik, ez genituzke aipatu gabe laga nahi gurekin

batera Aingeru Guardako jaiak antolatzen aritu diren boluntarioak. Doakiela hemendik gure esker ona guztiei. Aipatu nahiko genituzke, era berean, domekan Aingeru Guardakoaren ermitan Jainkoaren hitzaren liturgia irakurtzeko ardura hartu zuten hiru emakumeak, gure gomutan behintzat, estreinako aldia delako Plaza auzoan hori gertatzen dena. Zuek guztiokin eta zuentzat batuko gara lanera datorren urtean ere jai batzordekook, Aingeru Guardakoaren omenez. Ordura arte!

Aingeru Guardako Jai Batzordea

Zorionak

Zorionak eman nahi dizkiet *Eso no es sexo* ekimena antolatu zutenei. Ekimen ausart eta interesgarria izan zen. Ekitaldiari esker jabetu ginen gai blokeatzailea izan gabe hitz egin daitekeela pornografiatz. Orain gure seme-alabekin lan egitea dagokigu.

O.I.

MARTXOAK 8 / EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



ZUETAZ HARRO

Ahaldundutako emakume bakoitzaren atzean ahalduntzera bultzatu duten beste emakume batzuk egon dira.



Martxoaren 8aren harira, ekitaldi ugari antolatu dituzte astebururako Elgoibarren eta Mendaron

Emakumeen Nazioarteko Eguna da gaur, eta horren harira aldarrikapenerako hainbat ekintza antolatu dituzte astebururako Elgoibarren zein Mendaron. Kolore moreak hartuko ditu kaleak gaur. 11:30ak aldera entzungo dira lehen aldarriak, ikastetxe publikoek antolatu duten manifestazioan. Segidan, elkarretaratzea egingo dute Kalegoen plazan. Arratsaldean, bestalde, poteo-berriketaldia egongo da, Elgoibarko Emakumeen Asanbladak antolatuta, 18:30ean, eta gero, 20:00etako manifestazioarekin bat egingo dute. Emakumeen afariarekin amaituko dute eguna Elgoibarren, eta 90 bat emakume batuko dira Kultur Kafean. Bihar, bestalde, emakumeentzako autodefentsa tailerra egingo dute kiroldegian, eguerdian Uluka batuka irtengo da kalera eta Haizeak antolatuta, bazkaria egingo dute eguerdian, Sigman.

Mendaron elkarretaratzea egingo dute gaur udaletxe aurrean, 19:00etan. ITAIA Euskal Herriko Emakume Antolakunde Sozialistatik egin dute deialdia gaurko eta Mendaroko Gazte Asanbladatik bat egitera deitu dute. Biharko, berriz, Mendaroko kulturantzak erakusteko azoka antolatu du Diversas taldeak, Udalaren laguntzarekin, eta horren baitan, Alarma Morea taldeak kontzertua emango du, frontoian, 12:00etan.



Hilabete osorako egitaraua, Elgoibarren

- Martxoak 11: *Ahoz aho 2024* egitasmoaren barruan, bakarriketa saioa emango du Carolina Rueda ipuin kontalari kolonbiarrak, helduentzat, 19:00etan, Gotzon Garate Udal Liburutegian.
- Martxoak 17: *Ztandup* bakarriketa, 12:00etan, Aita Agirre Kulturgunean, Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenaren eskutik.
- Martxoak 18: *Maitasunaren bost hizkuntzak, maitatzeko modu ezberdinak*, Loredi Salegik gidatuta, 18:00etatik 20:00etara, Lilan.
- Martxoak 20: *Femme* filma, 21:00etan, Herriko Antzokian.
- Martxoak 22: Kafe solasaldia 7. arteari buruzko kafe tertulia. 18:30etan, Lilan.

Sanbartolomeetako Umeen Eguneko egitaraua umeekin adostu nahi dute Atxutxiamaiak eta Udal Ludotekak



Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak Sailak eta Udal Ludotekak parte-hartze prozesua jarri dute martxan sanbartolomeetako Umeen Eguna umeekin batera diseinatzeko. Helburu nagusia haurrek jaietako Umeen Egunean aktiboago parte hartzea da. Datorren astean egingo dituzte saioak, martxoaren 12tik 15era, eta egun horietan umeekin dinamika ezberdinak gauzatuko dituzte.

Bilerak Ludotekan egingo dituzte, 16:30etik 18:00etara, mailaka: martxoaren 12an LH1eko ikasleekin batuko dira; hilaren 13an, LH2 eta LH3koekin, eta martxoaren 15ean, LH4tik LH6ra artekoekin.

Euskarazko komunikabideek "beste bultzada handi bat" behar dutela ohartarazi du Hekimenek



Euskarazko komunikabideen egoerari buruzko gogoeta egin zuen Hekimen elkarteak martxoaren 1ean egin zuen urteko batzarrean. Egungo aldaketa teknologikoen, sozialek eta generazionalak bersortzera daramate sektorea eta nabarmendu zuten garai berrietara egokitzeak sortze garaian egindako ahaleginen parekoak egitea eskatzen duela. Horretarako, baina, Administrazioaren laguntza ezinbestekoa izango dela azpimarratu zuten bileran. "2019. urtean abian jarri zen dirulaguntza eredu berriak bultzada ekarri du euskarazko komunikabideek osatzen duten sektorearentzat, baina, zoritxarrez, pandemiak eta gerrak tarteko, eraldaketa prozesua galgatzen duten zailtasun gehigarriak sortu dira". Horregatik, eta hauteskundeetan atarian, Eusko Jaurlaritzaren gidaritzaren eskuratzeko lehian ari diren alderdiei zuzendu zaie Hekimen, jakinarazteko "behar-beharrezkoa" dela sektoreari

"beste bultzada handi bat" ematea, zailtasunak gainditu eta berriro ere eraldaketaren bidea indarrez hartzeko. "Korporazio mediatiko handien eragin homogenizatzailearen aurrean, Euskal Herriak bere izana du jokoan eta ondorioz aurrean duguna herri mailako erronka da. Gure izana, kultura, hizkuntza eta balore demokratikoak dira arriskuan egongo direnak, ez badugu berezko sare mediatiko anitza, ongi errotua eta euskalduna indarrean jartzen". Bide horretan hainbat konpromiso eskatu zituen Hekimenek (Agiri osoa irakurtzeko: barren.eus).

Urteko batzarra elkartearen kode deontologikoa berresteko ere baliatu zuten. Kode deontologikoa hori Hekimenek garatu du, Euskal Hedabideen Mahaian adostuta (Mahaia Ekimen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta hiru aldundietako euskara zuzendaritzek osatzen dute).

Altzolako sarbideak eta irteerak aldatuko ditu Elgoibarko Udalak, bide-segurtasuna hobetzeko



Altzolako sarrera-irteeran aldaketak izango dira datorren astetik aurrera. Aurrerantzean, ezingo da harrizko zubitik errepide nagusira irten. Zubi hori auzora sartzeko bakarrik erabili ahalko da beraz. Elgoibartik doazenez, hori bai, ezingo dute zuzenean jiratu ezkerretara zubian sartzeko, eta Altzolabe pareraino joan beharko dira norabidea aldatzera. Auzotik irteteko irteera bakarra egongo da, Altzolabe pareko aparkeku horren ondotik.

Stock azoka, merkataritxikiei laguntzeko



Denda atarietara aterako dituzte beren produktuak gaur eta bihar Elgoibarko merkataritxikiek, stock azokaren baitan. Atzo hasi zuten azoka, eta herriko hogeita hiru merkatarik egin dute bat: Aramburu bitxi-denda, Arauri lurrindegia, Atelier Oihana, Barrutia optika, Bizkor bizikletak, Casa Astigarraga, Ecenarro lentzeria, Federopticos Ikus, Ferpi jantzi-denda, Garate jantzi-denda, G&M jantzi-denda, Goiara lurrindegia, Ipintza margoak, Iria modak, Iriondo kirolak, Karkizano, Lagunak koltxoi-denda, Lete, Nalai oinetakoak, Olaia Martinez estetika zentroa, Roteta elektrizitatea, Sara jantzi-denda eta Uzuri optika. Ibilgailuentzat itxi egingo dituzte San Frantzisko, San Bartolome, Errosario eta Santa Ana kaleak, salbuespen bakan batzuekin.

Herrian erostera bultzatzeko beste kanpaina bat abiatuko du Elgoibarko Udalak

Herrian erostera bultzatu nahi ditu elgoibartarrak Elgoibarko Udalak, eta horretarako *Elgoibar Bizi-bizixa* kanpainaren hamargarren edizioa iragarri du. Orain, lehenengo, herriko dendariei egin diete dei kanpainara batzeko eta martxoaren 19ra arteko epea eman diete interesa dutenei izena emateko. Eskaera telematikoki egin behar dute Elgoibarko Udalaren webgunean sartuta: elgoibar.eus. Udalak 30.000 euroko inbertsioa egingo du kanpainan eta 4.000 bonu komertzial banatuko ditu. Kanpaina honen baitan, herritarrek %25eko deskontua izango dute kanpainarekin bat egin duten dendetan apirilaren 30a bitartean egindako erosketetan.

Gelatik Plazara sariketan parte hartuko dute Elgoibarko eta Mendaroko bertso eskoletakoek

Soraluzen jokatu dute, martxoaren 15ean, Debarreneneko Gelatik Plazara sariketa, 17:30ean. Gipuzkoako Bertsozale Elkartek antolatzen du, eta 8-14 urteko gaztetxoek parte hartuko dute bertan, tartean Elgoibarko eta Mendaroko bertso eskoletakoek. Irabazleek apirilaren 28an Aretxabaletan egingo den Gipuzkoako Bertso Eskolen Egunean abestu ahal izango dute gero.

Oibarren, Nafarroan, hartuko du Korrikaren lekukoa Atxutxiamaikak



Nafarroan Korrikako zati bat egiteko plana antolatu du Atxutxiamaikak. Atxutxiamaikako *Aldenik Alden* programako gaztetxoek izango dute ekimenean parte hartzeko aukera, Lehen Hezkuntzako seigarren mailan ari diren ikasleek. Izena ematen dutenek bi gau igaroko dituzte Oibar herrian, martxoaren 15etik 17ra, eta martxoaren 16an Korrikan hartuko dute parte. Atxutxiamaikak kilometro bat erosi du eta 07:56an hartuko dute lekukoa, Oibartik Iruberrirako bidean. Iruñea hiriburutik 42,9 kilometrora dagoen udalerria da Oibar, 800 biztanletik behera dituen. Gure inguruan ohituta gaude jendetzak ikustera Korrikaren lekukoaren atzetik, baina herri batetik besterako tartea oso zabalak dira Nafarroa hegoaldean, eta beste leku batzuetako kuadrillak eta taldeak joan ohi dira zati horietan Korrika egitera.

Martxoaren 12a izango da izena emateko azken eguna: elgoibarkoizarra.eus.

Arriaga auzoko ur-hondakinak Apraizko araztegiara bideratu dituzte

Iazko irailean hasi zituen Uraren Euskal Agentziak Arriaga industrialdeko saneamendu-sarea eguneratzeko obrak. Hondakin-ur horiek Apraizko HUAra doan Debabarreneko kolektore nagusira konektatzeko, kolektore zati batzuk eraiki ditu URA agentziak Ferrerias kalearen beheko aldean eta 634 errepidearen eskuinaldean, Kortazar errekaostaren gaineko pasabidean, handik pasatzen baita inguruko industrien urak biltzen dituen sarea. Lanak bukatuta, joan zen barikuan jarri zuten martxan sare berria. Sanemendu-sarea berritzeko lanen aurrekontua 610.831,70 eurokoa izan da, eta sei hilabetean gauzatu dituzte.

Arriaga industrialdeko hondakin-urena konponduta, Mendaroko eta Altzolako hondakin-uren gaia konpontzea falta da Debabarrenean. Proiektua publiko egina du URA Agentziak eta eguaztenean amaitu zen



alegazioak egiteko tartea. Mendaroko Udalak "balio handiko proiektua" dela zabaldu dute, baina aldi berean, zuzendu beharreko zenbait kontu badirela uste dute, bereziki Garagartzako auzoan eraiki asmo duten ponpatze-estazioaren inguruan, eta hainbat proposamen egin dizkiote URA agentziari, alegazio moduan.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Elgoibarko Udalak

Abenduaren 15a arteko epea egongo da Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzeko, Elgoibarko Udaletik jakinarazi dutenez. Gizarte bazterketari aurre egin eta egoera horretan dauden pertsonen egoera normalizatzeko baliabide ekonomikoak dira, eta Elgoibarko Udalak 240.000 euroko aurrekontu partida erreserbatu du 2024ko kontuetan horretarako. Hala ere, jakinarazi dute, beharra balego, partida hori egokitu eta

osatzeko gaitasuna baduela Udalak. Eskaerak Elgoibarko Herritarren Arreta Zerbitzuan egin behar dira, eta ondoren Gizarte Zerbitzuetako langileek kasuak banan-banan aztertuko dituzte.

Iaz, 33 eskaera jaso zituen Udalak 199 eskatzaileraren aldetik (2022an baino 50 gehiago) eta gastu totala 251.723.23 eurokoa izan zen. Diru laguntza hauen onura, berriz, 475 lagunek jaso zuten.

Aldaketak egin ditu Elgoibarko Udalak ludotekaren antolaketan

Ludotekaren erabiltzaile kopuruan izan den gorakada ikusita, antolaketan hainbat aldaketa egin behar izan ditu Elgoibarko Udalak. Adinaren arabera, arratsaldea bi segmentutan banatu du, bakoitza ordu eta erdikoa. Hona hemen proposatu duten antolaketa berria:

- Martitzenetan (16:30-18:00): LH1ekoak
- Eguaztenetan (16:30-18:00): LH2-LH3koak
- Eguenetan (16:30-18:00): HH5eko haurrak
- Martitzenetan (18:00-19:30): HH5eko haurrak
- Eguaztenetan (18:00-19:30): LH1eko haurrak
- Eguenetan (18:00-19:30): LH2-LH3koak
- Bariku eta zapatu (16:30-20:30): LH4-LH6koak.

Sexu-indarkeriari aurre egiteko moduz aritu zaie Marina Marroqui hezitzailea nerabeei



Eso no es sexo. *iOtra educación sexual es urgente!* izenburuko liburua aurkeztu zuen martitzenean Marina Marroqui gizarte hezitzaileak (Elx, Valentzia, 1988) musika eskolako auditoriumean, baina aurrez, sexualitate kaltegarri eta bortitzari buruz hitz egin zien Elgoibar Ikastolako DBH2 eta DBH3ko eta Institutuko Batxilergoko 2. mailako ikasleei, Herriko Antzokian. Sexu-indarkeriaren normalizazioaren gainean aritu zitzairen, bai eta sexu-heziketa egokirik ez jasotzeak eta sexuari buruz jakitzeko okerreko iturriak erabiltzeak dakartzan arriskuez ere. Elgoibarrera etorri izana baliatu du BARRENEK elkarrizketa egiteko, eta gaur zortziko zenbakian izango duzue irakurgai, gaurkotasan handiagoko gaiek elkarrizketa atzeratzera behartzen ez bagaituzte.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, Elgoibarren, eta gaur zortzi, Mendaron

Jubilatuaren biltokian egingo dituzte gaur odol ateratzeak Elgoibarren, eta txanda hartu beharko da, 623 328 408 telefono zenbakira deituta. Mendaron, hilaren 15ean egingo dituzte odol ateratzeak. Txanda eskatzeko 634 073 498 telefonora deitu behar da datorren asteko eguazten edo egunean 11:00etatik aurrera.


Greziako errefuxiatuentzako elikagaiak bilduko ditu Zaporeak elkarteak



Zaporeak erronkaren seigarren edizioa izango da aurtengoa, eta aurrekoetan legez, bi fase izango ditu. Lehenengo fasean, elikagaiak bilduko dituzte Debabarreneko herri guztietan Lesboreko kanpalekuetara bidaltzeko (Grezia), eta bigarren fase batean *tuper solidarioa* ekintza gauzatuko dute Eibarren.

Martxoaren 18tik 22ra bitartean egingo dute elikagaien bilketa, eta herriz herri jaso behar dena ere zehaztu dute: arroz biribila Ermuan eta Deban; makarroia Mallabian eta Mendaron; dilista pardina Eibarren; txitxirio pedrosillanoa Elgoibarren; arroz luzea Sorluzen; eta kontserbako arraina Mutrikun. Jasotako guztia Lesboreko kanpalekuetan dauden errefuxiatuei jaten emateko erabiliko dute. Izan ere, egoerak okerrera egin du han, hein handi batean Gazako gatazkagatik, Palestinako errefuxiatuak ere hara iristen hasi direlako.

Proiektuaren bigarren fasea martxoaren 23an egingo dute, Eibarko Errebal plazan. Egun horretarako *tuper solidarioa* ekintza antolatu dute, 14:00etatik eta 15:00ak bitarterako, eta parte hartzen duten guztien artean artelanak eta bazkariak zozketatuko dira. Informazio gehiagorako: zaporeak.eus.



*“Testuinguruak
eta berezko
joerak
erdalduntzera
behartzen ditu
euskaldun
gehienak
Euskal Herrian”*

IÑAKI IURREBASO

Soziologoa eta UEMAko ikerketa teknikaria

✍️ Ainara Argoitia / 🗣️ Asier Orbea

'Zergatik eta zertarako euskaldun? egitasmoaren barruan euskararen egungo egoerari buruzko hitzaldia eman zuen joan zen eguaztenean Iñaki Iurrebaso soziologo eta UEMAko ikerketa teknikariak (Legazpi, 1967) Elgoibarren, Aita Agirre kulturgunean. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak antolatuta zuten hitzaldia, elkarlanean, eta tesi-lanean jaso duenaren laburpena egin zuen Iurrebasok areto bete jenderen aurrean. 'Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?' izenburua eman zion hitzaldiari.

Orain arteko uste orokor bat okerra dela esatera zatoz. Euskararen ezagutzan indartsu geundela uste genuen, baina erabileran ahul. Zuk, aldiz, dagoen hizkuntza-gaitasunerako euskara asko egiten dela diozu. Nola azaltzen duzu hori?

Niri alderantziz ateratzen zait, bai. Hizkuntza gaitasuna da erabileraren zorua eta erabilera da hizkuntza gaitasunaren motorra, eta bi kontu horiek aintzat hartuta iritsi naiz ondorio horretara. Gaitasun datuei erreparatzen badiegu, daukagun errealtatea da hamar hitzunenetik zazpi erdaldun elebakarrak direla; alegia, ez dakitela euskaraz, eta aldiz, euskaldun elebakarrak, euskara besterik ez dakitenak, oso-oso gutxi direla. Gurea, beraz, ez da elebitasun parekatua inondik inora, eta horrek nabarmen eragiten du hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko dauden aukeretan. Gainera, elebidunak garenon artean ere, gehiago dira erdaraz errazago egiten dutenak euskaraz errazago egiten dugunak baino. 16 urtez gorakoetan, euskaraz errazago egiten dutenak %8 dira, eta aldiz, erdaraz hobeto moldatzen direnak %83,4. Hori dena kontuan hartuta, daukagun erabilera-maila txukuna da, euskaldun askok beren egunerokoan ezin izaten dutelako euskara erabili, beraien mintzakideek ez dakitelako, eta erabiltzeko aukera daukatenean ere, sarri erdarara jotzen dutelako, errazago moldatzen direlako erdaraz euskaraz baino.

Nola azaldu behar dugu erabilera gaitasunaren gainetik egotea? Zein da gure indargune nagusia?

Horren azalpen bakarra da jendearen sail handi batek baduela nahia euskarak bizirik jarraitzeko eta eroso zaiona baino gehiago erabiltzen duela euskara. Hau da, euskaldunak lotura afektiboa duela euskararekin. Hiru aldagai klasikoak kontuan hartuta (gaitasuna, erabilera eta motibazioa edo jarrera), indartsuen alor subjektiboan gaude, ametsen, euskaldun izan nahi horretan. Hori dena, jakina, brotxa lodiarekin marraztuta irudia, hor ere ñabardura asko egin beharko genituzkeelako. Baina bai, motibazioa da gure indargunea, aurrera egitea ahalbidetzen digun aukera bakarra; kontrara balitz (gaitasunean ondo eta erabileran okerrago), heriotzara kondenatua egongo litzatekeelako euskara.

'Kontuz ikuspegi ezkorra zabaltzearekin', ohartarazi zigun behin Joxe Mari Agirretxe

"Gaitasuna, erabilera eta motibazioa edo jarrera kontuan hartuta, indartsuen alor subjektiboan gaude, ametsen, euskaldun izan nahi horretan"

'Porrotzek' agerkari honetan bertan. Datuen irakurketan dago hemen ere aldea. Aitortu izan duzu demolinguistikak euskarari laguntzeko egin izan dituela irakurketa batzuk. Zer gairela esateko?

Horrekin adierazi nahi dudana da demolinguistika bakoitzak baduela bere tradizioa eta gurea euskararen alde zegoen jendeak sortu zuela 80ko hamarkadan. Beste leku askotan ez da hala izan, hizkuntza gutxitua oraindik eta gehiago zapaltzeko erabili izan dutelako sarri demolinguistika. Nire interpretazioa da gurean demolinguistika sortu zutenek nahi izan zutela erakustea batzuk-batzuk baginela eta horrek eraman zituela kategoriak modu jakin batean lantzeraz, hemen landu izan den kategorizazio hori ez baita orokorra. Gureak oso ondo erakusten gaitu argazkian.

Orain arteko ikuspegiak, hein batean, hizkuntza indarberritzeko aukerak txikiak zirela pentsatzeko bidea ematen zuen. Zureak, berriz, gure komunitatean konfiantza izan dezakegula. Zer ondorio ditu zure ikuskerak hizkuntzaren indarberritzeari begira?

Alde batetik, nire ikuskera honek erakusten du hizkuntza oso ahul eta zaugarri daukagula egitateetan, seguraski orain arteko argazkiak erakusten zuena baino ahulago. Lehen ikusten ez zen ahultasuna ere erakusten du gaitasunean, bai eta hizkuntz bilakaeraren gaian ere, hau da norbere bizialdian hizkuntza-ohituretan izaten ditugun jokaeretan, Euskal Herrian indartsuagoa baita erdalduntzea euskalduntzea baino. Baina, era berean, indartsuago ikusten ditugu alderdi batzuk eta alderdi horiek funtsezkoak dira hizkuntzak aurrera egin dezan. Eta hor, batetik aipatu



"Funtsezkoa da euskaraz errazago egiten dutenen multzoa handitzea. Horretarako alor guztietan eragin behar dugu, familiaratik bertatik hasita"

baino hobeto moldatzen den jende-kopurua handitzeko?

Nire lana gehiago izan da egoeraren azterketa egitea aurrera egiteko proposamenak lantzea baino, baina iruditzen zait garrantzitsua dela, lehenengo eta behin, gaiaren garrantzia jabetzea. Orain arte, gaitasunaz ari ginenean, asko fijatzen ginen hitz egiteko gutxieneko gaitasun bat zutenen kopuruaren bilakaeran, eta horretan aurreratu dugu. Multzo hori handitzen jarraitzea oso garrantzitsua da, baina funtsezkoa da euskaraz errazago egiten dutenen multzoa handitzea. Horretarako alor guztietan eragin behar dugu, familiaratik bertatik hasita. Ez dakit nik behar adinako arreta jartzen zaion seme-alabei eta inguruko umeei euskaraz ahalik eta aberatsen egiteari; euskara biziarekiko esposizioa ahalik eta zabalen izan dezaten egin behar dugu.

Ez dakit guraso euskaldun eta euskaltzaleek horren txipa argi daukaten. Komeniko litzateke euskalkia ondo erakustea, eta berdin hitanoa ere, gurasoek jakinez gero. Ahalegin hori egin behar da etxetik bertatik, eta baita eskolatik ere, ahozkotasuna orain arte landu izan dena baino gehiago landuz. Komunikabideetan ere hutsune handia daukagu. Umeentzako eta gazteentzako euskarazko programa askoz gehiago beharko genituzke, hizkuntza bizi eta erakargarria landuko dutenak. Alderdi guztietan landu beharko

beharko genuke transmisioaren gaia, daukagun egoera orokorrerako transmisioan nahiko ondo funtzionatzen duelako gure komunitateak, eta baita ere, ametsaren alderdian. Bi alderdi horiek dira, seguraski, hizkuntza komunitate gehienek ahul dauzkatenak. Galtzen ari diren hizkuntza guztien arazo argi bat hori da: hizkuntzarekiko kontsiderazioa oso ahulduta dutela eta ez dutela guk besteko grinarik eta indarririk belaunaldi berriei hizkuntza transmititzeko.

16 urtez gorakoetan euskaraz errazago egiten dutela diotenak %8 dira, eta aldiz, erderaz errazago moldatzen direla diotenak, %83,4. Nola egin beharko genuke euskaraz erderaz

litzateke gehiago hori. Eta oso garrantzitsua da, era berean, hiztun gaituen fabrika nagusiak izan diren arnasguneei eustea, hiztun gaituak, gehienbat, ingurune trinkoetan sortzen direlako.

Non bizi da euskaldunen kopuru handiena? Zer ondorio ditu horrek?

Hamar hiztunetatik bederatzia erdara nagusi den udalerrietan bizi dira, eta horren ondorioa da zaila dela testuinguru horietan euskaldun bizitzea, euskalduntasuna garatu ahal izatea eta ondorengoei euskara transmititzea. Beraz, testuinguruak eta berezko joerak erdalduntzera behartzen ditu euskaldun gehienak Euskal Herrian.


Zeuri entzundako bi datu: batetik, erdaraz hobeto egiten duten milaka lagunek ere euskara transmititzen dietela beren seme-alabei, eta bestetik, garai guztietan gehiago izan direla euskara transmititu duten euskaldunak, transmisioa eten dutenak baino. Zerk eusten dio euskarari dagoen mailan?

Oraindik baditugula ingurune osasuntsuak hizkuntzarentzat eta zonalde erdaldunetan badagoela euskaraz bizi nahi bat. Gure errealitatean daukagun gauza positibo bat da erdaraz errazago egiten duten euskaldunek erosoia zaiena baino euskara gehiago erabiltzen

"Ez dakit behar adinako arreta jartzen zaion seme-alabei eta inguruko umeei euskaraz ahalik eta aberatsen egiteari; euskara biziarekiko esposizioa ahalik eta zabalena izan dezaten egin behar dugu"

dutela, eta gainera, zenbait kasutan, estrategikoki egiten dutela hautu hori, adibidez seme-alabekin. Adibide bera jartzen dut beti: parke batean beren seme-alabekin euskaraz ari direnak eta haien artean erdaraz. Portaera hori askotan begi txarrez ikusi izan dugu euskaltzaleok. Uste izan dugu ez direla behar beste euskaltzaleak edo behar beste koherenteak hori egiten dutenak edo hori ez dela ume horiek euskaldun hazteko portaera egokiena. Eta egia izanda ere horrela ari diren gurasoek egiten duten hizkuntzaren transmisioa ez dela beren artean euskaraz egingo bazuten izango zena bezain arrakastatsua, iruditzen zait baloratu beharrekoa dela egiten duten





Euskararen nagusitasun eremuak hutsetik ehuneko ehunerako tartea erakusten duen zirkulu-erdian.

"Mesedegarría da jakitea gure hizkuntzaren egoera ez dela ona eta daukagun egoera honetan sendo lan egiten ez badugu berezko joerak euskara galtzera eramango gaituela"

Gurean kontrakoa da, eta hori gauza handia da.

Azken 30 urtean badaude adierazle batzuk esaten dutenak indarberritzeak jarraitzen duela; badaude esaten dutenak antzera gaudela, eta badaude beste batzuk diotenak atzeraka goazela. Non gaude?

Azkeneko 120 urtean, eta lehenagotik ere bai, ordezkapen prozesu oso indartsu batean egon gara, hizkuntzaren galera prozesu oso indartsuan, eta galera hori iraultzeko bi olatu edo bi ahalegin garrantzitsu egon dira: bata, 20ko eta 30eko hamarkaden inguruan, abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna sendo zegoen garaian. Ahalegin hura gerrarekin eta faxisten garaipenarekin bukatu zen. Beste olatua 60ko hamarkadan piztu zen eta askoz arrakastatsuagoa izan zen; bigarren ahalegin horrek irauli zuen egoera hemen. Gure gaurko egoera bi fase horien ondorioa da. Batetik, lehenengo fase haren ondorioa da gure gaurko minorizazio egoera larria, eta bestetik, daukagun alderdi positiboak -euskaraz bizi nahia, erabilera maila txukuna izatea eta transmisioan joera positiboa izatea-indarberritze-fase horren bulkadaren ondorio dira. Baina komeni da azpimarratzea bigarren

ahalegin hori, guraso horientzat errazagoa izango litzatekeelako seguruenik umeari ere erdaraz egitea, adierazkortasun handiagoarekin hitz egingo luketelako eta erosoago ariko liratekeelako. Agian ahalegin hori errekonozituko bagenie, errazago emango litzukete konpromiso handiagoetarako pausoak.

Haur eta gazteek egiten dute gurean euskara gehien. Nola baloratu beharko genuke hori?

Hori lorpen handia da. Hizkuntza gutxituen hurrenkera-prototipoa da zaharrek egiten dutela gehien, eta zenbat eta belaunaldi berriagoak, orduan eta gutxiago egiten dutela.

fase hori gelditu dela eta jada ez gaudela indarberritze aroan, baizik eta geldotze aroan.

Zenbateraino gara kontziente euskaldunok euskara izugarri minorizatua dagoen hizkuntza denaz?

Ez dut uste oso kontziente garenik. Gertatzen zaiguna da batzuk oso eremu euskaldunetan bizi garela eta ez garela konturatzen oso minoritarioak direla gu bizi garen bezalako inguruak, eta inguru erdaldunagoetan bizi den euskaldun euskaltzaleak ere normalean bilatzen duela bere mikro mundua, neurri batean euskaldun bizitzeko aukerak ematen dizkiona. Eta eskerrak mundu hori baden, baina hein berean, mikro mundu horretan bizitzeak askotan ez digu uzten ikusten ingurua oso erdaldundua dagoela Euskal Herrian.

Etsigarri ere gertatzen da askotan eginahalak egin arren hobera egiten ez dela ikustea. Uste duzu badugula indarrrik egoera iraultzeko?

Bi kontu daude hemen. Batetik, oinak lurrean eduki behar dira. Nik uste dut mesedegarria dela gure komunitatearentzat jakitea gure hizkuntzaren egoera ez dela ona, daukagun egoera honetan sendo lan egiten ez badugu berezko joerak euskara galtzera eramango gaituelako. Baina, hein berean, garrantzitsua da ikustea herri sendoa garela eta azkeneko 60 urtean gure herriak egin duena oso toki gutxitan lortu dutela. Beraz, konfiantza izan behar dugu geure buruetan. Datuek ez dute erakusten indarberritze joera argi bat dagoenik, baina ez dago ezta ere galera joera erabateko argirik. Eta hori horrela da egiten ari garen lan guztiagatik. Ba al dugun indarrrik egoera iraultzeko? Ez dakit. Hori urte batzuk barru ikusi beharko dugu, baina esango nuke baietz, denok horretara jartzen baldin bagara behintzat.

Euskararen biziberritzean, Jon Sarasuak zioen Aizkorri iritsiko ginelakoan irten ginela Arantzazutik, baina Urbian lainoak harrapatuta gaituela. Kike Amonarrizek, berriz, bidegurutzean ikusten zuen euskara, baina baliatu beharreko aldeko haizeak ere sumatzen zituen. Olatu berri baten beharra dugula esan diguzu zuk. Nola artikulatzen da hori?

Neuk ere ez dakit. Gure bizi-konstanteak zeintzuk diren ikusita eta euskaltzaleon aldartea

"Erdararen aldeko indarrak euskararen aldekoak baino indartsuagoak diren udalerrien eremuan sartu da Elgoibar, nahiz eta desoreka hori, jakina, ez den Bilbo baten dutenaren neurrikoa"

ikusita zerbait piztu beharra dagoela iruditzen zait, eta XX. mendean izan ditugun bi olatuek eman dutena ezagututa, hirugarren olatuaren bila joan behar garela, nahiz eta esatea errazagoa den egitea baino. Horretara jarri beharko gineteke ahalik eta euskaltzale gehien, eta denon artean asmatu bideak.

Lurralde nagusitasunaz ari zinela zirkulu erdi batera ekarri dituzu gure bi herriak. Zer egoera bizi du euskarak Elgoibarren eta Mendaron? Zein da azken urteetako joera bi herriotan?

Euskararen etxeko erabilera-maila kontuan hartuta egindakoa da grafiko hori. Eta etxeko erabilera hori honela kalkulatu dugu: euskaraz egiten dutenen %a eta bietara egiten dutenen %aren erdia gehituta. Horren arabera eta 2021eko zentsuko datuak kontuan hartuta, Elgoibarren etxeko erabilera %37n dago gaur egun, 1991n baino zazpi puntu apalago, orduan %44an zegoelako. Mendaron zertxobait gorago dago, %46an, baina han ere jaitsi egin da 1991. urtetik, orduan %68an zegoelako. Bietan egon da, beraz, euskara indartsuago. Bi hizkuntzen nagusitasun argirik gabeko udalerrien zatian dago gaur Mendaron, bi hizkuntzen erabilera-maila berdintsua delako. Bi indarrak parekoak dira Mendaron, eta beraz, sortzen diren prozesuak ez dira ez euskalduntzearen aldekoak, eta ezta erdalduntzearen aldekoak ere. Elgoibar, berriz, erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriekin batera dago, koska bat beherago. Elgoibar, beraz, sartu da erdararen aldeko indarrak euskararen aldekoak baino indartsuagoak diren eremuan, nahiz eta desoreka hori, jakina, ez den Bilbo baten dutenaren neurrikoa.

KITZIKI TALDEA, PLAZAK DANTZAN JARTZEKO PREST

✍️ Ainhoa Andonegi / 🎧 Kitziki

Kitziki musika taldea sortu dute Elgoibarko, Azkoitiko eta Bergarako zazpi lagunek, eta joan zen asteburuan eman zuten estreinako kontzertua, Azkoitin. Lagun eta senide asko joan ziren estreinako emanaldia ikustera, eta lehenengo kantetan urduritasuna nagusitu bazen ere, berehala eman zioten buelta egoerari eta jarri zuten dantzan aretoa. Bihar, beste estreinaldi bat izango dute, Elgoibarko Gaztetxean emango dutelako kontzertua, eta martxoaren 16an Maalako parkeko oholtzara igoko dira, Karakate Eguneko ospakizunen barruan. Gogotsu daude, ilusioz eta dena emateko prest. Maddi Arrieta, Olatz Makazaga eta Nahia Carrilloekin batu gara, taldearen nondik norakoak ezagutzeko.

Lagunak dira aspalditik, baina musikak batu ditu taldean zazpi emakume hauek. Elgoibarkoak dira bost: Maialen Arriola (perkusioa), Maddi Arrieta (biolina), Nahia Carrillo (gitarra), Olatz Makazaga (ahotsa) eta Alaitz Landa (ahotsa). Enara Mujika bergararrak teklatura jotzen du eta Itxaso Alberdi azkoitiarra arduratzen da baxua eta saxofoia jotzeaz. Iazko uda partean batu ziren taldea osatzeko, eta entseatzeko hasi ziren. Uste zutena baino lehenago etorri zaie kontzertuak emateko aukera, eta bata bestearen atzetik egingo dituzte zuzeneko hiru emanaldi. Plazak dantzan jartzea dute helburu, beraiek oholtzara gozatuz, ikusleei ere gozaraztea.

Iazko urtera egin behar da atzera Kitzikiren sorrera azaltzeko. Batxilergoko lehenengo mailan zeudela, *Emakumeak Oholtza Gaietan* hitzaldia antolatu zuten institutuan, eta egungo emakume abeslari ezagun batzuen esperientzia ezagutzeko aukera izan zuten. Nahia Carrillori barruan zerbait piztu zitzaion hitzaldi haren



Iazko udan hasi ziren entseatzeko, eta joan zen zapatuan eman zuten estreinako kontzertua, Azkoitin. Bihar Elgoibarko Gaztetxean joko dute, eta hilaren 16an, Maalako parkean.

ondotik, eta buruari bueltaka hasi zen. Handik hilabete batzuetara, Gaztetxean erromerian eta parranda giroan zeudela, aurrera egitea erabaki zuen: "Besteek egin baldin badute, guk ere egin ahal izango dugu", pentsatu zuen, eta Batxilergo Musikaletik ezagutzen zuen Itxaso Alberdirekin partekatu zuen bere ideia eta ez zuen hark ere zalantzarik egin. Taldekide bila hasi ziren biak, eta Maddi Arrieta izan zen taldera gehitzen lehenengoa. Olatz Makazagari eskatu zioten abesteko. "Politika ikasten ari da, jende aurrean ondo moldatzen da, eta bera izan behar zen



Kitziki taldekoak joan zen zapatuan Azkoitin eman zuten kontzertuan.

Elgoibarkoak dira taldekideetako bost; azkoitiarra da beste bat eta Bergarakoak zazpigarrena. Taldekide guztiak dira emakumezkoak. Lagunak dira aspalditik, baina musikak batu ditu taldean.

abeslaria". Ez zuen ezetzik esan. Gero, teklaturaren behar zutela pentsatu zuten eta Batxilergotik ezagutzen zuten Enara Mujika bergararrarekin jarri ziren harremanetan. Harek ere baietz erantzun zuen. Maialen Arriola tentatu zuten gero bateria jotzeko eta Alaitz Landa ere batu zitzairen. Zazpikoa osatua zuten, denak emakumezkoak: "Ez ginen horren bila joan, baina horrela suertatu eta oso pozik gaude. Bateria-jolea ere neska izatea ez da erraza!".

Udalera jo zuten eta Elgoibarko Musikarien Elkartearen (EME) kontaktua eman zieten.

Elkarteko bazkide egin, eta entseguetarako lokala lortu zuten Pedro Mugurutzako eskoletan: "Asko garenez, lokalik handiena utzi digute EMEkoek, eta bateria ere beraiek lagatzen digute. Oso ondo portatu dira gurekin eta oso eskertuta gaude".

Taldeari izena jarri behar zioten, izenik gabe zaila delako bidea egitea. Euskarazko hitz bat nahi zuten, desberdina. Interneten begira hasi ziren eta *kitzika* hitza aurkitu zuten. Probokazioa edo eszitazioa esan nahi du, eta gustatu zitzairen, bai hitzaren soinua eta baita esanahia ere, baina konturatu ziren bazegoela izen horrekin beste musika talde bat eta pintaketa batzutan ere irakurria zutela. Horregatik, azken letra aldatu eta Kitziki izena jartzea erabaki zuten: "Ordurako gure mezu-trukean ere *kitzikis* izenez deitzen genion elkarri, eta izen horrekin geratu ginen".

EUSKAL KANTEN BERTSIOAK

Erromeria taldea osatzea zen hasierako asmoa, baina ez daukate ez trikiti eta ezta pandero-jolerik ere: "Trikiti eta pandoririk

gabe ezingo dugu ba erromeria taldea garenik esan, baina erromeria taldeen estilora funtzionatu nahi dugu". Euskal kanta ezagunen bertasioak jotzen dituzte, eta haien helburua ikusleak dantzan jartzea da. Sorotan Bele edota Huntza taldeak dituzte gogoko, baina abesti herrikoiak ere jotzen dituzte. Euskaraz abesten dute, baina gaztelerazko kantaren bat ere tartekatzen dute. Ordubeteko errepertorioa daukate momentuz, eta epe laburrerako asmoen artean errepertorio hori handitzea aipatu dute: "Momentuz ez daukagu gure kantuak sortzeko asmorik. Bertasioak jotzen ditugu, eta nahiko genuke ordu eta erdiko errepertorioa osatzea". Bertasio horiek prestatzeko lanketa guztia eurek egiten dute: "Oinarrizko akordeak Interneten daude, baina bakoitzak bere instrumenturako moldatzen du partitura gero".

Astean pare bat aldiz entseatzen dute, eta joan zen zapatuan eman zuten estreinako kontzertua, Azkoitin. Itxasoren amaren bitartez Abaraxka aterpetxean jotzeko aukera izan zuten, eta hasieran urduri bazeuden ere, uste baino hobeto irten zela esan dute: "Lekua oso polita zen, tamaina aldetik oso aproposa, eta etorri zen jende guztia gure gertukoa zen. Gu gogotsu geunden, eta ikusleak ere bai. Azkenerako denek dantzan bukatu zuten eta oso polita izan zen hori bizitzea".

Bihar, bigarren zuzenekoa emango dute Elgoibarko Gaztetxean, eta herrian jotzeak sortzen die sentsazio berezi bat: "Oraingoan jende gehiago etorriko da, eta horrek urduritasuna sortzen digu. Elgoibarrek errespetu gehiago ematen du". Baina oso pozik daude, Elgoibarko gaztetxean jotzea beraiantzako gauza handia delako. Hala ere, plazara irteteko benetako hitzordua martxoaren 16an izango dute. Karakate Bizirik taldeak Karakate Eguna antolatu du egun horretarako, eta egun osoko egitaraua prestatu dute, tartean, Kitziki taldearen kontzertua. Maalan izango da, kalean, herritar orenen bistan: "Hori bai izango dela benetako debuta! Gaztetxera uste dugu adin batetik gorako jendea ez dela etorriko, baina Maalan edonon egon daiteke. Jende asko pasatzen da handik, eta hori bai izango dela jende aurrean jotzea".



**Kitziki taldekoek
eskerrak eman dizkiete, oraindik
ezagutu gabe, beraiengan konfiantza
jarri eta oholtzara igotzeko
aukera eman dieten eragileei.**

Pozik daude, eta apur bat harrিতa ere bai, hain epe laburrean hiru kontzertu emateko aukera sortu zaielako. "Orain arte ezkutuan aritu gara, baina Instagramen kontua zabaldu dugunetik jarraitzaile pila bat batu zaizkigu, eta hiru kontzertu emateko deitu digute. Ez gara ezagunak, ez gaituzte ikusi eta gudan konfiantza hori jarri izana eskertzekoa da. Eskerrak eman nahi dizkiegu aukera hau eman diguten eragileei, eta baita ere musika ekipoa utzi eta teknikari lanak egin dizkigun Enararen aitari ere".

Emakumezkoak dira, lagunak, gazteak eta musikariak. Aspaldi hasi ziren musika ikasten, instrumentuak jotzen eta taldekideetako hiru kontserbatorioko ikasle dira. Hasi baino ez dira egin, baina argi dute aurrera egin behar dutela orain. Musikarekin gozatzen dute, eta musikarekin gozazati nahi dute.

Bertso-jaialdiarekin hasiko dituzte Mendaron Motxaila Eguneko ospakizunak

Martxoaren 15ean eta 16an ospatuko dute Mendaron Motxaila asteburua. Hasteko, gaur zortzirako, bertso-saioa antolatu du Motxaila Elkarteak, Udalaren babesarekin. Punta-puntako lau bertsolari gonbidatu dituzte aurten ere: Alaia Martin, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio eta Julio Soto. San Agustin kulturgunean izango da saioa, 22:00etan. Aurten ere, Ainhoa Urbieta Iriondo mendarorarrak egingo ditu gai-jartzaille lanak, eta bertso eskolako ikasleek ere parte hartuko dute saioan. Sarrerak Aitzbeltz tabernan eta Morroskillo dendan jarri dituzte salgai, 8 euroan.

Hilaren 16rako, egun osoko egitaraua antolatu dute. 09:00etan Gaztetxean elkartu eta Aitzbeltz kobazuloraino igoko dira aurrena, eta han, urteroko usadioan, mokadua egingo dute 11:00ak aldera.



Zuzeneko musika ere egongo dela aurreratu dute eta Inma Mugertza hidrogeologo elgoibartarrak paisaia karstikoaren eta lurrazpiko uren inguruko azalpenak emango ditu. 15:00etan, herri bazkaria egingo dute Gaztetxean, eta bazkalostean, Manex Astigarraga eta Asier Galarza bertsolarien bakarrikzketekin gozatzeko aukera izango da (Bazkaritako txartelak Lagun Betikoak tabernan daude salgai, 12 euroan). Iluntzean tabernaz taberna ibiliko dira Patxangoi elektrotxarangakoekin, eta gauean, Ortzi eta Kaparrak taldeek kontzertua emango dute, Gaztetxean.

Mendaroarren ez diote hutsik egin Aingeru Guardakoari

Ez zuen eskatutako eguraldirik egin domekan, eta Aingeru Guardako ermitaren ondoan egin ohi duten jai autopista azpira aldatu behar izan zuten lekuz derrigorrean jai batzordekoek. Hala ere, jende mordska batu zen jaira. Izatez martxoaren 1a da Aingeru Guardakoaren eguna, eta ohi legez, meza eman zuten egun horretan Plazako ermitan, baina ospakizun handia domekan egin zuten. Hitzaren liturgia irakurritz hasi zuten eguna, Aingeru Guardako ermitan, eta hori bera bada aipatzekoa, estreinakoz emakumeek hartu zutelako horren ardura. Elizakoak eginda, autopista azpira mugitu ziren. Aimar Sorazu eta Aitor Urbieta aritu ziren bertsoetan eta Igor Reyk eta Maite Olazabalek jarri zuten trikiti giroa. Txosna ere jarri zuten jai batzordekoek, eta jaiaren amaieran pozik ziren jarritako jenero guztia saldu zutelako. Julen Cañamares eta Aratz Mugertza kirolarien arteko lehian, Cañamares nagusitu zen, eta antolatzaileek zozkatu zuten otxarra Ramon Lazkanorentzako izan zen. (👊 Eukene Gurrutxaga)



Gabriel Arestiren kantuak eta poemak kantatu eta errezitatuko dituzte Eñaut Elorrietak eta Iñigo Astizek



Neurrigabea da Gabriel Aresti poetak (Bilbo, 1933-1975) egindako ekarpena. Hamaika bider irakurri ditugu haren poemak, eta asko izan dira, belaunaldiz belaunaldi, haren testuak musikatzera jo duten musikariak. Baina hain ditugu ezagunak eta ikusiak haren testu eta abesti batzuk, ezen, tarteka, jadanik ez baitugu zer esaten duten ikusten ere. Arestiren testuak irakurtzea eta haren kantak entzutea da arrisku hori saihesteko modurik ziurrena, eta hori da

Eñaut Elorrieta musikariak eta Iñigo Astiz idazleak *Enplego zorientsuago bat!* emanaldian proposatzen dutena: Aresti irakurri eta Aresti entzutea. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak, Elgoibarko Udalak eta AEK euskaltegiak antolatatu dute Korrika Kulturalararen baitan, eta martxoaren 12an izango da emanaldia (martitzena), 19:00etan, Inazio Bereziartua musika eskolako auditoriumean. Sarrera doan izango da.

'Passport' antzezla emango dute Yllana konpainiakoeak Elgoibarren gaur zortzi, martxoaren 15ean



Ezagunak dira Yllana konpainiakoeak Elgoibarren, eta martxoaren 15ean Herriko Antzokian izango dira berriro *Passport* antzezlarekin. Lau komikok Komedistan izeneko herrialde batean zehar egindako bidaiari buruzkoa da antzezlana, munduan hara-hona barrea zabaltzen diren artistei egindako aitortza halako bat. Herrialdean sartzeko aduanako arazoak, jatetxe batean hizkuntzarekin izandako gatazkak eta funtzio baten aurretik eta ondoren atzerrian lan egitearen esperientzia laburbiltzen dute.

Carolina Rueda ipuin kontalariak helduentzako saioa emango du Elgoibarren, hilaren 11n

Intujai taldeak urtero antolatzen duen Ahoz aho Ahoz kotasunaren Nazioarteko Jaialdiaren barruan, helduentzako ipuin kontaketa saioa antolatu dute Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegikoek astelehenerako, hilaren 11rako (19:00). Carolina Rueda ipuin kontalari kolonbiarrak emango du saioa. Ipuin kontalari gisa ibilbide luzea egin du Ruedak eta mundu osoko entzuleak liluratu izan ditu bere kontakizunekin eta entzuleak alegiazko mundura



eramateko trebetasun apartekoa aitortzen diote antolatzaileek. Saioan parte hartzeko, izena emateko eskatu dute, liburutegian edo ondorengo telefono zenbakietako batera deituta: 943 743 525 / 688 710 138.

Dozenaka emakume bildu ditu Alba Duque argazkilariak plazan argazki baterako



Askotariko emakumeak bildu ziren zapatuan Alba Duque argazkilariak (Bartzelona, 1992) egindako deialdira. Marroia eta zuria arteko arropak jantzita Kalegoen plazara batzeko eskatu zien bezperan emakumeei eta hala egin zuten elgoibartarrek. Kalegoen plazako frontoian egin zituen argazkiak Duquek, eta Instagramen

erakutsi asmo ditu orain. Elgoibarrera *Gureganako bidea* argazki erakusketa aurkeztera etorri zen argazkilari kataluniarra. Emakumezkoen gorputzei egindako argazkiak filtrorik gabe erakutsi zituen Duquek Kultur Etxeko erakusketa-gelan, estereotipoei aurre egin eta emakume askotarikoei lekua eginez.

Elgoibarren jokatuko dute domekan, hilaren 10ean, Aurresku Txapelketako kanporaketa



Elgoibarren, Herriko Antzokian, jokatuko dute domekan Aurresku Txapelketako kanporaketa, 11:00etatik aurrera. Legazpi, Zizurkil, Andoain, Amasa-Villabona, Tolosa, Errenteria, Asteasu, Astigarraga, Lizartza, Lezo, Leitza, Lasarte-Oria eta Aresoko dantzariak lehiatuko dira bertan, bi mailatan banatuta: D eta B sailak. Tartean, lau dantzari elgoibartar ere izango dira. D sailean, Uxue Cabrera eta Duna Santos lehiatuko dira, eta B sailean, berriz, Unax Ansola eta Haizea Luluaga.

Alarma Morea taldeak kontzertua emango du bihar, hilak 9, Mendaron

Mendaron bizi diren askotariko emakumeek sortutako Diversas taldeak Udalaren laguntzarekin biharko antolatatu duen kulturantzatasunaren azokaren barruan, kontzertua emango dute Alarma Morea taldekoek, frontoian, 12:00etatik aurrera. Ainhoa Plagaro Bermudez (gitarra, ahotsa eta txaloak), Uxue Plagaro Bermudez (ahotsa eta txaloak) eta Nerea Dual Jimenezek (kaxoia, ahotsa eta txaloak) osatzen dute taldea, feministatzat dituzte beren buruak eta popa eta runba egiten dute.



Zubiko obren ondorioz, Mendaron egin dituzten trafiko aldaketek udara arte iraungo dute

Zubiko obrak direla-eta trafikoan aldaketak izan dira Mendaron. Herrigunetik errepide nagusira irten behar dutenei eragiten die bereziki obrak, zubitik ikastolara arteko zatian errei bat itxi egin dutelako, eta ondorioz, Kapaingotik bueltan irten behar direlako orain ibilgailuak. Gipuzkoako Foru Aldunditik Udalari jakinarazi diote irailera arte iraungo dutela trafikoan egin dituzten aldaketek.

Uholdeentzat oztopo zela iritzita San Antonioko harrizko zubi zaharra eraistea erabaki zutenetik, Garagartza, Mendarozabal eta Herriko Enparantza 634 errepidearekin lotzeko dagoen bide bakarra da orain konpontzen ari diren zubia. 1976an eraiki zuten, eta Bide Azpiegituretako teknikoek aldiro-aldiro egiten dituzten ikuskapenetan, arrakalak eta hezetasunak eragindako kalteak atzeman zizkioten. Horregatik, hasi zituzten obrak: egitura atzeman dituzten arazoak konpontzeko, euste-sistema sendotzeko, eta bertatik pasatzen diren zerbitzu guztiak ordenatzeko. Teknikariak lanean ari dira, eta tarteka orain ere sortzen dira eragozpenak, sarbide bakarra izanda derrigortuta daudelako trafikoaren eten gabe egitera lanak, baina eguaztenaz geroztik, eragina handiagoa da. Izan ere, zubia eta ikastola arteko zati horretan errei bakarra laga dute, herrira sartzeko bakarrik erabil daitekeena. Ondorioz, herrigunetik errepidera irten nahi duenak, ikastola pasata, ezkerretara hartu behar du, aldapan gora egin eta Kapaingo etxe ondotik ospitalera doan errepide zatira irteteko.

Aldaketa hau uda aldera arte luzatuko da. Semaforoak jarriko dituzte trafikoaren zuzentzeko apirila aldera: bata, Kurutz-gain industrialdeko irteeran, eta bestea, Mendarozabal kalean,



autobus geltokia baino ezkerretara, zebrabidearen ondoren. Zubian, berriz, espaloietako bat itxiko dute, baina bestea zabalik mantenduko dute oinezkoentzat.

Zubiaren konpontzea lanak

Egituran topatu dituzten arazoak konpontzen eta zubiaren euste-sistema sendotzen ari dira langileak. Zubiaren orain arteko euste-sistemak ez ditu gaur egungo arauak betetzen, eta beraz, homologatutako sistema gehituko diote. Horretarako egingo duten obra baliatuta, galtzadako taula bera eta bi espaloiak ere zabalduko dituzte. Egitura sendotzeko, corten altzairuzko egitura bat jarriko dute, sostengu propioduna, zubiari lehenaz gain pisurik ez gehitzeko. Egitura hori zubiaren bi muturretan finkatuko dute eta erdian euskarri bat jarriko diote. Erditik alde batera 40 bat metroko bao bat sortuko dute, eta beste aldera, hogeita metrokoa. Modu horretan karga arinduko diote zubiari. Espaloiak, berriz, bi metroraino zabalduko dituzte (gaur egun, 1,5 ingurukoak dira). Aldundiak 2.125.258 euroan lizitatu zuen obra eta irailean esan zuten zortzi bat hilabete beharko zituztela lanak amaitzeko.

Ikusmina sortu dute Emakume Master Cup txapelketako finalerdiek



Emakumezko pilotaririk puntakoenak jokoan ikusteko aukera izan zen domeka goizean Elgoibar Ikastolako frontoian, Emakume Master Cup txapelketako bi finalerdiak jokatu baitzituzten. Ikusmina sortu zuten partidek eta 400 bat lagun batu ziren harmailetan. Aurreneko finalerdian Arrizabalaga-Erasunek Beitia-Mendizabalen aurka jokatu zuten, eta Arrizabalagak eta Erasunek lortu zuten finalerako txartela, finalerdia 22-14ko emaitzarekin irabazita. Ez zuten partida ona jokatu, egindako tantoak

baino huts gehiago egin zituztelako lau pilotariek. Olatz Arrizabalaga bosgarrengez arituko da binakako finalean eta estreinakoz arituko da Itsaso Erasun. Martxoaren 17an jokatu dute finala, Arrasaten, eta Maddalen Etxegarai eta Ainara Gamindek osatutako bikotea izango dute aurkari, bigarren finalerdia irabazi zuen bikotea. Hasiera txarrari [0-8 galtzen hasi ziren] buelta eman eta 22-16 irabazi zuten Amaia Aldairen eta Arrate Bergararen aurkako norgehiagoka. (Argazkiak eta bideoa barren.eus webgunean). 📺 Asier Orbea



Mendaroko eta Elgoibarko 40 emakumek hartu dute parte aurtengo Lilatoian



Milaka emakumek parte hartu dute aurtenera Lilatoian. Bost kilometroko lasterketa da, eta guztira 4.443k amaitu zuten. Elgoibartik eta Mendarotik ere joan ziren: 31 Elgoibartik eta bederatzik Mendarotik. Aurreko urtean baino gehiago, 22 izan baitziren iaz.

Maria Lasa Galarraga irurarrira izan zen proba amaitzen azkarrena, 17 minutu eta hogei segundoko denborarekin. Talde handienaren saria Jakintza ikastolak eraman zuen, 180 partaiderekin; Debako gaztelekuko taldea izan

zen bigarren talde handiena eta Ondarroako Etxelila Aringainan taldea hirugarrena. Emakume batzuek martxoaren 8ko Emakumeen Egunaren harira antolatu zuten estreinako Lilatoia, 1990ean. Urteroko manifestazioaz gain, "beste zerbaite" egin nahi zuten. Garai hartan leku itxietan bai, baina kirola kalean egitera ez zen emakume gehiegi animatzen: hori haustea zen helburua, eta baita emakumeek espazio publikoa hartzea ere. 115 emakume inguruk parte hartu zuten orduko hartan.



UZ Trail mendi lasterketa irabazi du Mayi Mujikak

Urretxuko eta Zumarragako mendietan jokatu zuten domekan UZ Trail lasterketa. 23,4 kilometroko ibilbidean Izazpi eta Irimo mendietako tontorretatik igaro ziren parte hartu zuten 160 antxixikariak. Iñigo Uribeetxebarria legazpiarra izan zen azkarrena gizonetakoan, 2 ordu 7 minutu eta 25 segundoko denborarekin. Emakumezkoetan Mayi Mujika gailendu zen, ondo ezagutzen dituen parajeetan, urretxuarra baita jaiotzez, azken urteetan Elgoibarren bizi bada ere. Mujikak 02:07:55ko denboran osatu zuen proba.

Mendaro Herria Sari Nagusia, bihar

Mendaro Txirrindulari Elkarteak kadete kategoriako txirrindularientzat antolatzen duen Mendaro Herria Sari Nagusiaren hirugarren ekitaldia jokatu dute zapatuan, martxoaren 9an. Kurutz Gain industrialdetik irtengo dira txirrindulariak 16:00etan, eta 43 kilometroko ibilbidea osatu ostean, helmuga ere Kurutz Gainen izango dute.



Aroa Saez txirrindulariak Nojan hasi du Espainiako Kopa Txapelketa



Espainiako Kopan lehiatuko da aurten Aroa Saez txirrindulari elgoibartarra Igamo Packaging taldearekin, eta Nojan (Kantabria, Espainia) jokatu zuten txapelketako lehen proba puntuagarria, asteburuan. Kadete kategoriako lasterketan parte hartu zuten 160 txirrindulariak 33 kilometroko ibilbidean lehiatu ziren, eta honakoak dira Igamo taldeko lau ordezkariak: Izar Ezkibel (69. postua), Aroa Saez (75), Ziortza Heredia (88) eta Maddi Oleaga (101). Zortzi lasterketak osatuko dute Espainiako Cofidis Kopa, eta, besteak beste, Valentzia, Murtzia, Galizia edo Leonen jokatu beharko ditu lasterketak Aroa Saezek. Kopako hurrengo lasterketa etxetik gertu jokatuko dute Igamokoek, Igartza Sari Nagusia izango baita bigarren proba puntuagarria. Beasainen izango da, martxoaren 17an.

Elgoibartik Azitainera, mendiz-mendi

Domekan, martxoaren 10ean, egingo dute ume eta familientzako hurrengo mendi irteera. Oraingo honetan, Elgoibartik bertatik irtengo dira oinez eta Azitaineraino joango dira, Elgoibar eta Eibar lotzen dituen bide zahar batetik. Kalegoen plazan elkartuko dira, 09:30ean, eta handik Sigmaruntz abiatuko dira. Behin Sigman, Saturixo alderantz joko dute, eta erreka gurutzatu ostean, Arrate bailaratik barrena Azitaineraino jaitsiko dira. Saturixo errekan ur asko badago, Morura joango dira.

650.000 euroko inbertsioa Olaizaga kiroldegiko eraikina berritzeko

Olaizaga kiroldegiko igerileku zaharrak dauden eraikinaren zati bat zaharberritzeko lanak egingo dituztela jakinarazi du Elgoibarko Udalak. Obrak egiteko aurrekontua 650.000 eurokoa da (BEZik gabe), eta udal-arkitekto teknikoak identifikatu dituen egiturazko, klimatizazioko eta ur-tratamenduko arazoak konpondu nahi dituzte zaharberritzearekin. Eraikinak 30 urte ditu, eta Udaletik zehaztu dutenez, oinarrizko mantentze-lanak bakarrik egin dituzte urteotan, eta eraikinak dituen arazoei konponbide sakonagoa eman nahi diote orain. Obra proiektuaren lehen zatian, proiektua idazteko zerbitzua eta zuzendaritza fakultatiboa kontratatzeko lizitazioa atera dute, 56.000 euroko aurrekontuarekin, BEZik gabe. Proposamenak aurkezteko epea martxoaren 19an amaituko da.

Hamalau norgehiagoka jokatuko dituzte Pilota Egunean



Pilota Egunaren 24. ekitaldia antolatu du Elgoibar Ikastolak Lagunak Pilota Eskolakoekin laguntzarekin, biharko, martxoaren 9rako. Finalerako sailkatu diren 28 bikoteek hamalau partida jokatuko dituzte, 12 tantora. Kalegoen Plazako frontoi zaharrean egingo dute Pilota Eguna, baina euria egingo balu Elgoibar Ikastolako pilotalekuan jokatuko lituzkete partidak, iaz egin zuten moduan. Gaztetxoen artean pilota eta kirola sustatzeko antolatzen du Ikastolak Pilota Eguna.

LANA

Eskaerak

Astean zehar, goizez, adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta zaintza titulua. **685 729 790**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **666 012 086**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketari aritzeko prest. Esperientziaduna. Titulu soziosanitarioa ateratzen dihardut. **642 578 943**

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Titulu sozionaritarioa daukat eta lanerako baimena. Esperientzia. Berehala lanean hasteko prest. **642 577 823**

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zainduko nituzke. **613 255 520**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Titulu soziosanitarioa daukat. **614 114 360**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan. Erizain titulua eta soziosanitarioa ditut. Esperientzia. **643 505 662**

Erizain titulua daukat. Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. **647 554 386**

Gizon arduratsua garbiketari egiteko edo pintore zein peoi lanetarako prest. **632 708 954**

Bikote arduratsua, adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. **634 196 236**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia. **637 222 318**

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest, orduka. Esperientzi handia. **632 684 096**

Edozein lan egiteko prest nago. Baita asteburuetan ere. **611 215 176**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia, eta ordutegi malgua. **613 576 523**

Sara naiz, eta lan bila nabil. Umeak zein adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentzia onak ditut. **604 392 529**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Urteetako eskarmentua eta titulu soziosanitarioa daukat. **632 679 710**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizain titulua daukat eta ospitaleko zaintza lanean urteetako esperientzia. **642 883 496**


GARAJEAK

Garaje itxia alokatzen da, Jausoro plazan (udaletxetiki gertu). **672 422 237**

BESTELAKOAK

Mastin arrazako txakurkumeak oparitzen ditut. Otsailaren 25ean jaio ziren. **663 134 415**

  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etaldeen Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitateko gastuak ez dira partaidetza-kuotaren arabera ordaintzen, eta denok kuota bera ordaintzen dugu, duela urte batzuk lortutako akordio baten ondorioz. Duela gutxi, etxebizitza baten titularrak aldatu dira, eta jabe berriak esan du ez dituela ordainduko gastuak hartutako akordio haren arabera, berak ez zekielako ezer hari buruz. Jabeak dio eskrituran adierazitakora mugatuko dela. Egoera hau nola konpon dezakegun jakin nahi nuke.</p> <p>Gastu orokorrak banatzeko sistema estatutuaren bidez alda daiteke. Bertan, beste partaidetza-araubide bat ezar daiteke, edo, bestela, zenbait salbuespen jaso daitezke eraikineko elementu pribatibo, pisu edo lokal jakin batzuen alde. Komunitateak bete egin beharko du komunitateko estatutuaren gastuak banatzeko ezarritako sistema, komunitatearen erabakiek sistema hori aldatzen ez duten bitartean, legeak ezarritako betekizunei eta gehiengoei jarraituz. Higiezinaren trafikoko juridikoaren segurtasunak eskatzen du jabetza eskuratu dutenak behar bezala babestuta egotea Erregistroko idazkунetan jarri duten konfiantzagatik. Beraz, kontuan hartu behar da erregistro-fede publikoaren printzipioa. Hortik ondorioztatzen da erregistroko idazpenen egiazkotasuna, horien existentzia, hedadura eta titulartasuna. Horregatik, hirugarren eskuratzailerik onustedunak bertan adierazitakoaren babespean geratzen dira, erregistro-idazkунetan. Eskuratzearan mantendu egingo dira, eta ezin izango zaie haien kalterako izan, beren eskubideak mugatzen dituzten eta behar bezala inskribatuta ez dauden alderdi guztiak.</p> <p>Ondorioa. Itun hori aurreko jabeari bakarrik eska dakioke. Beraz, ezin zaio jabe berriari luzatu, itun edo akordio hori ez badago behar bezala inskribatuta Jabetza Erregistroan.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 655 658 bidalita.



Zorionak, guapisima, asteazkenean 11 urte bete zenituelako. Familiako guztion partez.



Zorionak, **Oinatz**, zure urtegunean. Ondo-ondo ospatu eta segi orain arte bezain jator. Etxekoan eta lagunen partez.



Zorionak, **Maren**, asteazkenean 9 urte egingo dituzulako. Gozatu eguna! Bederatzi tirakada belarritik eta bederatzi patxo!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
barren.eus webgunean

 **943 743 704**
 **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk.
20870 ELGOIBAR

Galdetu prezioak eta gustura erantzungo dizugu.




EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WUU28T61ES ARROPA GARBIGAILUA



A T G A

549 €

- 9 KG-ko karga
- 1.400b/min
- Speed perfect
- WaveDrum danborra
- Etenaldia+Karga funtzioa
- Hygiene Plus 40º garbiketa

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu ari.

8 BARIKUA

Denden ordutegian

Stock Azoka. Txankakuako merkatariek denda atarietara aterako dituzte salgaiak.

16:30 Odol ateratzeak, Elgoibarren. Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408.

9 ZAPATUA

Denden ordutegian

Stock Azoka. Txankakuako merkatariek denda atarietara aterako dituzte salgaiak.

10:00 Pilota Eguna. Elgoibar Ikastolak antolatuta, Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Ikastolako frontoian. jatetxean.

16:00 'Mendaro herria' kadeteen txirrindulari lasterketa. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Kurutz Gain industrialdean.

10 DOMEKA

11:00 Elgoibarko Aurresku Txapelketa. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, Herriko Antzokian.

11 ASTELEHENA

19:00 Ipuin kontalaria. Carolina Rueda. Helduentzako saioa izango da. Udal Liburutegian.

12 MARTITZENA

19:00 Kantaldia: 'Enplego zoriontsu bat'. Eñaut Elorrieta eta Iñigo Astizek Gabriel Arestiren poemak eta kantuak abestuko dituzte. Korrika Kulturalaren barruan, Elgoibarko Izarrak, Udalak, AEK-k eta musika eskolak antolatuta. Musika Eskolako auditoriumean.

13 EGUAZTENA

19:00 Musika eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

14 EGUENA

19:00 Musika eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

15 BARIKUA

17:00-20:40 Odol ateratzeak, Mendaron. Ikastolan. Txanda hartzeko: 634 073 498 (eguztzen eta eguen artean deitu, 11:00etatik aurrera)

18:00 Hitzaldia: 'Mugikorren auzia'. Gurasoentzako saioa izango da. Telmo Lazkanok emango du, Aita Agirreko areto nagusian. Gaztelaniaz.

19:00 Antzerkia: 'Passport'. Yllana taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

ELGOIBAR

Martxoak 8, barikua

11:30 Martxoaren 8ko manifestazioa, Arreiturre BHI eraikinetik.

18:00 Tertulia-poteo feminista. Kalebarren plazan.

20:00 Martxoaren 8ko manifestazioa. Kalebarren plazan.

21:00 Emakumeen afaria. Kultur Kafean.

Martxoak 9, zapatua

9:30 Emakumeentzako autodefentsa tailerra. Olaizaga kiroldegian.

12:30 Uluka batuka. Lilatik.

14:30 Emakumeen bazkaria eta dantza saioa. Sigma

MENDARO

Martxoak 8, barikua

19:00 Elkarretaratzea. Herriko Enparantzan.

Martxoak 9, zapatua

11:00 Mendaroko kulturantzitasuna erakusteko azoka. Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldearen aterkipean sortu den Diversas taldeak antolatuta, Udalaren laguntzarekin. Mendaroko frontoian.

12:00 Alarma Morea taldearen kontzertua, Mendaroko frontoian.

Zinea
Herriko Antzokian



'Ferrari'

8, barikua: 19:00
 9, zapatua: 19:00 / 22:15
 10, domeka: 19:00
 11, astelehena: 21:00



'Ganado o desierto'
 (Ongarri zinekluba)
 13, eguaztena: 21:00



'La aventura infinita'
 10, domeka: 16:30

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

MARTXOA

- | | |
|---------------|---------------|
| 8 BARIKUA | ■ Ibañez |
| 9 ZAPATUA | Garitaonandia |
| 10 DOMEKA | Garitaonandia |
| 11 ASTELEHENA | Arriola |
| 12 MARTITZENA | ■ Fernandez |
| 13 EGUAZTENA | Yudego |
| 14 EGUENA | ■ Oruesagasti |
| 15 BARIKUA | Barrenetxea |

2024 urte guztian, gauzez:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

- | | | |
|---|--|--|
| ■ Fernandez:
Herriko
Enparantza,4
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142 | ■ Ibañez:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638 | ■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384 |
|---|--|--|

Eta, Debabarrenean zer?

Korrika Kulturala Deban: Niala Magoaren ikuskizuna. Martxoaren 9an, 18:00etan, Kultur Elkarteko liburutegian. Niala mago elgoibartarrak (Alain Zulaika) 'Ezinezko misterioitsuak' izenburuko ikuskizuna emango du Deban, 12 urtez gorakoentzat. Korrika Kulturalaren baitako ekintza da eta Kultur Elkartean izango da. Sarrerak 5 euroan jarri dituzte salgai. Informazio gehiago berriketan.eus webgunean.





Aste honetako erretratu zaharra Isabel Barrutiak ekarri du BARRENEKO erredakziora. 1951. urtekoa da, eta Trini Barrutiaren ezkontza egunean ateratakoa da, Eibarren. Gerora, berriz ezkondu zen Trini, Argentinan. Erretratuan ageri diren lau emakumeak hilda daude: Ana Zuazubizkar, Amparo Barrutia *Goiko Errota*, Trini Barrutia *Goiko Errota* eta Maria Angeles Lizundia.



Ekarri etxean duzun aulki edo
sofa zahar hori eta
berri-berri utziko dugu!

Milaka oihal ditugu aukeran!



Lehen

Orain



Agustina Udabe Osa

2024ko martxoaren 3an hil zen, 98 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Mari Zabaleta Etxeberria

2024ko martxoaren 3an hil zen, 97 urte zituela
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Tomas Conde Borrajo

2023ko martxoaren 4an hil zen, 65 urte zituela.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.


Etxekoak



Juan Gurrutxaga Askasibar

2024ko otsailaren 29an hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Maite ninduen zure bihotzak,
maite zintuen neriak.
Oroitz tristeak senti ditut gaur,
nere barrenen gordiak.
Iruditzen zait zelai berdean
gaudela, ai!, eseriak,
gure gainetik agur eginaz
txori kantari guztiak.**



Gabriel Arestiren kantuek eta poemak

ENPLEGU ZORIONTSUAG BAT

Enaut Elorrieta

Iñigo Astiz

Elgoibarko Musika Eskolan - Martxoak 12, asteartea - 19:00



ELGOIBARKO IZARRA
Kulturaren Erakundeak



ELGOIBARKO
Kulturaren Erakundeak

æk
EUSKALTEGIA



MUSIKA
ESKOLA